



**LEGEZKOTASUN-TXOSTENA, LEGE GARAPEN ETA ARAU KONTROLERAKO
ZUZENDARITZAK EMANDAKOA, POCTEFA 2014-2020 EUROPAKO DIRU-LAGUNTZETARA
EUSKARAREN ADIERAZLE SISTEMA (EAS) PROIEKTUA AURKEZTU AHAL IZATEKO,
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAREN, NAFARROAKO
GOBERNUAREN, EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOAREN, ARABAKO FORU
ALDUNDIAREN, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIAREN ARTEKO HITZARMENA SINATZEKO BAIMENA BALIOZKOTZEKO
GOBERNU KONTSEILUAREN AKORDIO PROPOSAMENARI BURUZKOA**

113/2015 LT

TXOSTENAREN XEDEA

Txosten honen xedea aipatutako hitzarmena onesteko Akordioa da, kontuan hartuz hitzarmen horren bitartez Eusko Jaurlearitzak EAS-EUSKARAREN ADIERAZLE SISTEMA izeneko proiektuan bazkide moduan parte hartuko duela, eta hori, aldi berean, (POCTEFA) 2014-2020 Lurraldeen arteko Lankidetzeta Programaren barnean garatuko da.

Horren bitartez hiru helburu bilatzen dira:

- Euskararen Adierazle Sistema (EAS), euskararen eremuan hizkuntza-egoera sozialaren berri emateko adierazle sorta dena, era planifikatuan eta sistematikoan diseinatzea, eta iraunkor eta antolatuan datuz elikatu eta eguneratzea.
- Hizkuntzaren egoera eta bilakaera jasotzea eta ezagutzea.
- Gizartearen esparru desberdinetan hizkuntzak une jakin batean duen zabalkundea eta denboran zehar izaten ari den bilakaera zehatz-mehatz azaltzeko baliabidea izatea.

TXOSTEN HAU EMATEKO OINARRI DIREN ARAUAK:

Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuaren 13.1.c) artikulua arabera, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzari dagozkio, beste gaien artean, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari ez dagozkion lege-aurreproiektuen eta eduki arauemailea duten erregelamendu-xedapeneko

proiektuen legezkotasunaren barne-kontrola. Halaber, Jaurlaritzaren Kontseiluak agintzen dizkion beste gai batzuetara zabaltzen da kontrola.

Azkeneko zehaztapenaren inguruan, 1995ko ekainaren 13ko Gobernu Kontseiluaren Akordio ezarri zuen Eusko Jaurlaritzak sinatuko duen hainbat Hitzarmenen legezkotasun-kontrola egingo dela, hala nola, lurraldeen eta nazioarteko erakundeekiko sinatzen direnak.

IGORRITAKO DOKUMENTAZIOA:

Hortaz Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak Hitzarmen horri buruz legezkotasun-txostena eskatu du.

Bidalitako espedientean honako agiri hauek jasota daude:

- Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendariaren idazkia, zeren bitartez Sailburuari eskatzen zaion aipatutako Hitzarmenari buruzko memoria sinatzea, Gobernu Batzordera eraman baino lehen.
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako Sailburuaren oroitidazkia.
- Finantza-konpromisoren adierazpena eta finantzatzeko Plana.
- Gobernu Kontseiluaren Akordio Proposamena, Hitzarmena sinatzea baimentzen duena.
- Kideen mugaz haraindiko lankidetzako Hitzarmenaren testua, POCTEFA izeneko europar programaren ereduarekin bat datorrena.

Horrez gain, txosten hau jaso ondoren ekimena bultzatzen duen Sailak lortu beharko du Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Ekonomia-Kontrol Fiskalaren txostena, horrela agintzen baitu ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 22.1.a) artikulua. Alde horretatik, bidalitako oroitidazkiak aurreikusten du Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak proiektu horretan hainbat ekintza burutuko dituela 2015 eta 2017 urteen artean (memorian 2014ko aurrelanen gastuak ere gaineratu dira). Ekintza horietatik gastuak sortzen direnez, aldez aurretik aurrekontu-babesa izan beharko dute gastu horiek, ahaztu gabe, edozein kasutan, kostu orokorraren %65 Feder Funttsak finantzatzeko duela.

AURREKARIAK:

Aurrekarien atal honetan komeni da hona ekartzea Espainia – Frantzia – Andorra (POCTEFA) 2014-2020 Lurralde Lankidetzako Programaren barnean, Interreg V-A izeneko Proiektua. Horretarako Gobernu Batzordeak hitzarmen hori sinatzeko baimena 2015eko abenduaren 22an eman du.

Gainera, izapidetutako Hitzarmenari dagokionez, adierazi behar dugu Interreg V A Espainia-Frantzia-Andorra (Poctefa) 2014-2020 Programaren 2015eko lehenengo deialdia egin zela (EHAA, 182.zk., 2015eko irailaren 24koa). Beraz, deialdi horren barruan kokatu dezakegu orain aztertzen ari den dokumentua.

LEGEZKOTASUNARI BURUZKO OHARRAK

Europar Parlamentua eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 12ko 1299/2013 Erregelamenduaren (CE) arabera, Eskualde Garapeneko Europako Funtsak Europar Lurralde Lankidetzaren inguruko helburuari laguntzeko berariazko xedapenak ezarri zituen. Horrez gain, Europar Batzordeak Espainia – Frantzia – Andorra (POCTEFA) 2014-2020 Lurralde Lankidetzako Programaren barnean, Interreg V-A izeneko Proiektua onartu zuen, 2015eko maiatzaren 19ko 3086 Erabakiaren bitartez.

Programaren 3. ardatz nagusiak honako hau planteatzen du: “Tokiko baliabideen babesa, balorazioa, erabilera jasangarria sustatzea”. Horren barruan 7. helburu espezifikoak jasota dago: “Ondare naturalari eta kulturalari balioa ematea garapen jasangarriko ikuspegi bateratuen bidez”.

Aipatutako Espainia – Frantzia – Andorra (POCTEFA) 2014-2020 Lurralde Lankidetzako Programaren barnean, Eusko Jaurlaritzak parte hartuko du EAS-Euskararen Adierazle Sistema, bazkide moduan, Euskararen Erakunde Publikoarekin, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin, eta Euskarabidearekin batera.

Aztertzen ari garen testua da alderdi guztiek sinatu behar duten dokumentua, non finkatzen diren erakunde guztien eskubideak, betebeharrak eta proiektua gauzatzeko erantzukizunak; helburu horrekin gainera Parteneriada sortuko dute.

Egindako aurreikuspenen arabera, proiektuaren kostua 598.488 eurokoa izango da. Dena den, gastu orokorraren 389.018 euro Feder Funtsak finantzatuko du, Hitzarmenari atxikitako Finantza-Planak adierazten duen bezala. Horrenbestez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak 327.256 euroko ekintzak bultzatuko ditu, eta horietatik Feder Funtsak 212.716 euro ordainduko du, Federen esku-hartzeko tasa (% 65) errespetatuz.

Beraz, oinarrizko dokumentua dugu, non Feder Funtsaren arloari dagokion prozedura erabilgarri baita diru-laguntzak esleitzeko. Dokumentu horretan sinatuko duten alderdi guztien eskubide zein betebeharrak jasoko dira, eta, aldi berean, ohartu behar dugu legezkotasun-kontrola taxuz egiteko kontuan hartu behar ditugula prozedura horren berezitasunak eta hitzarmenei aplikagarri diren gure ordenamenduko arauak. Horrek eskatzen digu dokumentuaren izaera juridikoa, sinatzeko eta formalizatzeko prozedura eta Administrazio honen parte hartzen duen organoaren eskumena aztertzea.

a) Izaera Juridikoa

Hitzarmenaren irakurketa hutsa eta testu beran ematen zaion definizioa kontuan hartuz, ondoriozta daiteke igorritako dokumentuak kontratuzko izaera duela (edo gutxienez ia kontratu izaera), alderdi sinatzaileak hitzarmenean ezarritakoari lotzen baitu.

Lankidetzeta-Hitzarmenaren figura Administrazio guztientzat koordinazio eta kooperazioaren tresna egokia da, helburu komunak lortzeko bidea errazten baitu. Hortaz, horrelako dokumentua kontratutzat hartu behar da, bere barnean alderdi sinatzaileentzat konpromisoak eta akordioak jasotzen baitira. Horren guztiaren ondorioz, dokumentua aztertu behar da kontratazio publikoari buruzko arauen arabera.

Izan ere, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuko 4.1.j) artikulua espresuki bere aplikazio-esparrutik kanpoan uzten ditu Nazioarteko erakunderen baten berriazko prozedura bati jarraituz esleitzen diren kontratuak eta hitzarmenak. Horiek arau bereziak izango dituzte, baina sortuko diren zalantzak eta hutsuneak ebazteko, aipatu Testu Bateratuaren printzipioak aplikatuko dira.

Azken kontu horri dagokionez, araugintza-hutsuneak betetzeko Zuzenbidean ezarritako arau-majlako integrazioaren tresnak behar dira, eta kasu honetan bakarrik hori lortzen da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak xedatzen duena aplikatuz.

Hitzarmenaren estipulazioen irakurketak 26ko 30/1992 Legearen 6.1 artikulua ezartzen duen kategorian sartzea garrantzitsua da, zeinean Administrazio Orokorra eta Autonomia Erkidegoen arteko hitzarmenak azaltzen diren. Alabaina, Hitzarmenaren klausulak aintzat hartuta, aipatutako artikuluan araututa dagoen aurreikusitako kasutik bereizten den alde nagusia da atzerriko zuzenbidearen mendeko organoaren parte-hartzea Hitzarmenean, frantziar lurraldekoarena baita.

Beraz, agerikoa da Hitzarmenaren edukiak Kanpo-Ekintzako arloan kokatzen gaituela, baina Autonomia Erkidegoaren ahalmen eta interesetan oinarrituta; hortaz, zentzu hertsian, nazioarteko harremanetatik kanpo dago, baita nazioarteko tratatuak sinatzeko lanetatik ere.

Ildo horretan, nazioarteko harremanetako arloa urratzeko arriskuari dagokionez, adierazi behar da Autonomia Erkidegoek burutzen dituzten ekintza guztiak, nahiz eta kanpo-proiektzioa izan, ez direla hartu behar kanpo-politikakoak izango balira bezala. Izan ere, Konstituzio Auzitegiak, Espainiar Konstituzioaren 149.1.30 artikulua xedatutakoa interpretatu duenean, hainbat epaietan irizpide hori finkatu du. Adibidez, Konstituzio Auzitegiak azaldu du ez duela onartzen “atzerriko beste herrialde edo herritar batzuekin zerikusia duten gaiekiko edozein lotura aski izatea (lotura hori oso arina izan arren) eskumena «nazioarteko harremanak» izeneko gaian sartu ahal izateko besterik gabe eta nahitaez” [Konstituzio-azitegiaren 153/1989 epaia]. Eta, aldi berean, berretsi du “gai baten kanpo-alderdia ezin dela baliatu EKaren 149.1.3 artikulua interpretazio hedakor bat egiteko, eta, era horretan, kanpoan nolabaiteko eragina izan dezakeen Estatuaren eskumen oro bertan sartzeko, kanpoko eragin hori oso arina izan arren; zeren eta, hala balitz, horrek ekarriko luke Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko eskumen-banaketa berrantolatzea” [Konstituzio-azitegiaren 89/1993].

Era berean, gogora ekarri behar dugu Estatuako Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Bitariko Lankidetzaren Batzordearen akordioa, Estatuaren Kanpo Ekintzari eta Zerbitzuari buruzko martxoaren 25eko 2/2014 Legearen arlokoa, 2014ko abenduaren 30eko Araubide Juridikoaren sailburuordeak sinatutakoa, zeren bitartez Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkien Kanpo-Ekintzako arloko eskumenak bermatzen baitira, Konstituzio-auzitegiaren 153/1989 epaiarekin bat etorriz, eta Estatuaren Kanpo Ekintzari eta Zerbitzuari buruzko martxoaren 25eko 2/2014 Legeak xedatutakoa kontuan hartuz.

Horrexegatik, Autonomia eta atzerriko erakunde publikoaren arteko kooperazioa (modu informalean edota hitzarmen-tresna baten bitartez formalizatuta) Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen erabileran oinarritu daiteke, baita bere interesak zaintzeko berme instituzionalean ere. Hala ere, ezin ditugu ahaztu Estatuaren kanpo-politikaren eta nazioarteko harremanen eskumenek jarduera autonomikoaren muga-gisa jokatzeko dutelako.

Beraz, kontuan hartzeko irizpide nagusia izan behar da garatzeko ekintzak bere eskumenen arlokoak direla egiaztatzea. Eta, espediente honetan, hitzarmenaren proposamena Euskal Autonomia Erkidegoak dituen hizkuntza-arloko eskumenetan txerta daiteke (Autonomia Estatutuaren 16 artikulua) inongo zalantzarik gabe.

Horregatik guztiagatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren parte-hartzeari dagokionez, Hitzarmenaren testua analogiaz aplikatu behar den araudiarekin bat dator, zeren dokumentuan zehazten baitira alderdi sinatzaileak; euren gain hartzen dituzte betebeharrak; proiektuaren finantzazioa; hitzarmenaren indarraldia; eta berau indargabetzeko arrazoiak. Gainera, Hitzarmenaren edukia Europar Batzordeak ezarritako eredu ofizialaren arabera idatzi da.

Azkenik, ohartu behar dugu Hitzarmenaren 5 artikuluan finantzaketa komunitarioari buruzko atal bat jasota dagoela. Finantzaketa horren ondorioz parte hartuko duten erakundeak diru-laguntzen onuradunentzat hartuko dira, Eranskinean bildutako Finantzaketa-Planak aurreikusten duen bezala. Diru-laguntza izaera duten aipatu funtsa horien araudia (Feder funtsari dagozkionak) dokumentuaren sarreran azaltzen diren europar erregelamentuetan bilduta dago.

b) Hitzartzeko prozedura

Hitzarmen honetan Gobernuko parte-hartzearen berariazko araudirik ezagatik, administrazioen arteko Hitzarmenetan parte-hartzea arautzen duten irizpide zein xedapen orokorretara jo beharra dago.

Alde horretarik, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1996ko urtarrilaren 9ko bilkuran zehaztu zuen zein hitzarmenek behar zuten bere baimena, eta, aldi berean, horien negoziazioa, izapidetzea, izenpetzea, argitaratzea eta segimendua erregulatzeko arauak ezarri zituen.

Aipatu Akordioak (3.1.c/ araua) Gobernu Kontseiluaren baimena behar duten Hitzarmenen artean sartu zituen Europar Batasuneko erakundeekiko eta eskualdeen arteko zein nazioarteko erakundeekiko hitzarmenak. Horrenbestez, arau horrek Hitzarmen honi zuzenean eragiten dio.

Gainera, Akordioaren 9. arauaren arabera hitzarmen horiei dagokienez adostasunaren adierazpena eta dokumentua izenpetzea Lehendakariak egingo du Euskal Autonomia Erkidegoaren izenean, salbu eta Gobernu Kontseiluak beste autoritateari espresuki gaitzen badio.

Hori dela eta, Hitzarmenaren testua ikusita, non aurreikusten den organo sinatzailea Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako Sailburua izango dela Eusko Jaurlaritzaren izenean, aipatu beharrekoa da aurreikuspen hori bat datorrela Gobernu Kontseiluaren Akordioaren 9. arauak xedatutakoarekin, salbuespen bat suposatzen baitu Lehendakariak horrelako Hitzarmenak sinatu behar dituen arau nagusiari.

Bestalde, ohartu behar dugu Gobernu Kontseiluaren Akordio Proposamenak jaso beharko lituzkeela bi jakinarazpen osagarriak, Legebiltzarrari eta Gorte Nagusiei Hitzarmenaren berri emateko, kontuan hartuz xedatutakoa, hurrenez hurren, ekainaren 30eko 7/1981 Gobernu Kontseiluaren 18.e) artikuluan, eta Euskal Herriko Autonomia Estatutuko 22.1 artikuluan.

c) Eskumen organikoa

Espedientea bultzatzen duen Sailaren parte-hartzea bat dator Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari esleituriko funtzioekin, horrela arautu baitu Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuko 10.1.c) eta d) artikulua.

Zehazki, Sail horren Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendariari dagokio “Lankidetzaproiektu europarrak koordinatzea eta kudeatzea, hizkuntza-politikaren arduradunak beste elkarte eta organismoekin batera”, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala arautzen dituen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 24.e) artikulua ezarritakoaren arabera.

ONDORIOAK:

Nafarroako Gobernuarekiko, Euskararen Erakunde Publikoarekiko, Arabako Foru Aldundiarekiko, Bizkaiko Foru Aldundiarekiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko Hitzarmena sinatzeko baimena ematen duen Gobernu Kontseiluko Akordio Proposamenaren testua Zuzenbidearen arabera da.

Hauxe da nire irizpena, Zuzenbidean hobeto oinarrituriko beste edozeinen mende jartzen dudana.